

**JOSE MANUEL ARRIOLAREN BERTSOAK AUSPOA-N****Aita Zavalak astindutako azken hauspotxoa**

Aldizkari honetako irakurle bertsozaleak ondo dakienez, iaz, urte hasierarekin batera utzi gintuen Aita Antonio Zavala bertso biltzaile eta kultur ekintzaile nekaezinak. Urtarrilak bi zeuzkalarik, Xabierreko kanpaien hots metalikoak neguko hotza ere dardarazi zuen, bertakotuta zegoen tolosarraren heriotza adieraztean.

Bederatzi urte lehenago Deustuko Unibertsitateak *Honoris Causa* Doktore egin zuen jesuitak, besteak beste, *Auspoa* liburu-bilduma mardulean 311 liburu zizkien opetsiak liburuzale euskaldunei. Edozelan ere, hil osteko egunetan liburu berri baten ikusi zuen argia, *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak* bertso-liburuak, hain zuen ere, Zavalak berak hil aurretioxan amaitua eta inprentarako bidean utzia.

Ramon Artolaren *Sagardoaren graziya* (1961) liburuarekin eman zion hasiera Aita Zavalak *Auspoa* bildumari; eta berrogeita zortzi urte geroago, Jose Manuel Arriolaren liburuarekin, hirurehun eta hamabigarren katebegia erantsi zion kultur kate luze bezain emankorrari Leire mendikatearen magalean bizi zen herri literaturaren maitaleak. Hauspo txikitxo horiek guztiek bizitu izan dute *Auspoa*-ren kultur sua; eta, neurri handi baten, hauspo apal horiei esker iraun ahal izan du herri literaturaren txingartzak bizirik.

## Arrasateko kalezaina

Jose Manuel Arriola Debako Goikoetxe baserrian jaio zen, 1916ko ekainaren 15ean. Lehenengo ikasketak eginda, baserrian jardun zuen, harik eta 1936ko gerra zitalak etxetik alden du zuen arte. Hogei urterekin Maroko-ko lurak ezagutu zituen, eta geroago Brunete eta Belchite bezalako fronteetan gerraren saminak pairatu zituen, baita berunaren hozkadak ere.

Gerrak utzitako elbarritasuna zela-eta, aukera eman zioten Jose Manueli lanpostu berria aukeratzeko, eta 1939an Arrasateko udaltzainen taldean sartu zen. Josefa Albizurekin ezkondu, eta lau seme-alaba jator izan zituzten: Rosario, Jose Bizente, Jose Mari eta Arantxa. Lanean berrogeita bi urte eman eta gero, 1981ean jubilatuta zen Arrasate herriaren omena samurkiro jasorik. Handik gutxira, Basarri handiak honela agurtzen zuen kalezain-bertsolaria Donostiako egunkari bateko *bere bordatxotik*:

Berrogei ta bi urte egiñik  
 Arrasateko kalezai,  
 atsedentzeko, Joxe Manuel,  
 badala uste det garai.  
 Lan eta kezkak utzi dituzu,  
 bizi zaite orain lasai,  
 zu guztiz ondo portatu zera,  
 eta herria ere bai.

Jubilazio kari, lasai bizitzeko ziotson Basarrik atsedena haritzeko garaira heldu zen lagunari. Harrezkero, halaxe bizi da emazte Josefak lagunduta, beso zabalik hartu zuen Arrasate herrian.

## Jose Manuel Arriola bertso-jartzaile

Esan dezakegu bertso zaletasunaren hazia familian bertan topatu zuela Arriolak; izan ere, osaba zuen Itziarko Jose Antonio Soraso Unanue “Zubeltzu” bertsolari ezaguna. Basarrirentzat holarako osaba bat izanik, ez zen mira egitekoa Arrasateko kalezain

jatorra bertsolaria ere izatea: “Neretzat etzan batere arrigarri, Itziarko *Zubeltzu* zanaren iloba baita Joxe Manuel. Eta *Zubeltzu* etzan nolanaiko bertsolaria. Ez orixe!”. Aita Zavalak *Zubeltzu eta Saikola bertsolariak* liburuan (*Auspoa* 93, 1970) eman zizkigun itziartarraren inguruko jakingarriak. “Zubeltzuri omenaldia” bertso-sortako (1974-01-04) lehenengo ahapaldian honela kantatzen zion ilobak handik egun bira omenduko zuten osabari:

Gai oni buruz nai diot esan  
biotzez zerbait indartsu,  
ain pozgarria zaidan berria  
zabaldua da oraintsu.  
Nere lekuan aurkitzen danak  
nola ez artu gogotsu?  
Ilbeltzan seian omentzen dute  
nere osaba Zubeltzu.

Bat-bateko bertsogintzan (lagun arteko bertsoak, familia giroan kantatutakoak...) jardun ohi duen arren, Arriola ez da izan plazaz plaza kantari dabiltzan horietakoa. Bertsolari izena bertso sorta idatziek eman diote Jose Manuel Arriolari, bertso jarriei esker lortu zuen bertso-jartzaile ospea. Berak aitortzen duenez, 1968. urtearen bueltan hasi zen bertsoak idazten eta argitaratzen: “Kalezain baidamazkit / ogeitamar urte, / bertsuak idazteko / esaten didate”.

Arriolak idatzitako bertsorik gehienek egunkarietan (*La Voz, El Diario Vasco...*), garaiko aldizkarietan (*Arantzazu, Goiz-Arri, Zeruko Argia...*), eta jubilazio kari Arrasateko Udalak argitaratu zuen *Nekez bada ere* (1981) liburuan ikusi izan dute argia. Liburu horretan Arriolaren 751 bertso argitaratu ziren, baina bertso-jartzaile jatorra ez zen horretan gelditu eta idazten jarraitu zuen, kementsu jarraitu ere.

Urte luzetako bertso lana eskertuz, 1994ko urtarrilaren 23an, Bertsolari Egunean, bederatzi bertso-jartzaile omendu zituen Bertsolari Elkarteak Donostian, eta gerra osteko bederatzi kul-

tur langile horien artean han zegoen Arrasateko kalezaina ere. Hona hemen omenduen zerrenda: Jose Aierbe, Gillermo Albi-  
zu, Jose Manuel Arriola, Jesus Lete *Ibai-ertz*, Manuel Matxain,  
Inozentzio Olea, Luis Rezola, Sebastian Salaberria eta Xalbador  
Zapirain *Ataño*. Egun gogoangarria, zinez, Victoria Eugenia  
antzokiko oholtza-buruan egon ziren bertso-jartzaile betera-  
noentzat. Arriolak honela sentitu zuen omen handi hori:

Omenaldia lendabizitik  
eman banun ere ontzat,  
nere barrenak maiz galde egin dit:  
zer dala-ta ori neretzat?  
Zer dala eta Euskal Erriak  
artu bear nau ni aintzat?  
Omenaldia gogoratzean  
biotza eroritzen zat.

Hirugarren omenaldi nagusia, duela urtebete argitaratu zen  
*Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak* bilduma berri eta mardula  
dateke, bere baitan 1.874 bertso biltzen dituena. Kronologiari  
dagokionez, lehenengo sorta (“Mixio-igandeari”) 1968ko otsai-  
lekoa da, eta azkena (“Urre eztaia”) 1998ko urtarrilaren 8koa.  
Beraz, hogeita hamar urteko bertso-uzta da azken liburuan bil-  
tzen dena.

## **Bertsolari kronika egilea**

*Nekez bada ere* omen-liburuan Juan Mari Lekuonak, Arriola-  
ren bertsogintzaren azterketa egiten duelarik, beren-beregi az-  
pimarratzen du Debako bertso-jartzaileak Arrasateko bertako  
zein Euskal Herri zabaleko gertakizunen inguruko kronikak  
egiteko duen jaidura. Izan ere, inguruan gertaeraren bat suma-  
tuz gero, luma dantzatzeari ekingo zion kalezain jatorrak:  
“Esangairikan sortu ezkeru / gu segituan kantura”. Kronika ku-  
tsu hori da, beraz, Arriolaren bertsogintzari darion “alderdi na-  
bariena, eta aipagarriena”, Lekuonaren 1981eko berbak erabili-



Jose Manuel Arriola

# Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak



**Bilduma: Jose Maria Arriola**  
**Argitalpena: Antonio Zavala**

ta. Harrezkeroko bertsogintzan ere (1981-1998), bide beretik jarraitu zuen Arriolak, hurreko errealitateari behatuz, eta gertatzen zenaren berri emanez, urteotan bertso gehienak Donostiako *El Diario Vasco*-n eta Arrasateko jubilatuen aldizkarian argitaratu zituelarik.

Arrasateko benetako kronista dugu Arriola, berak erabilitako gai-zerrendatxo honetan ikus daitekeenez: jaiak, kultur ekintzak, omenaldiak, herritar ezkonduen urrezko ezteiak, jubilatuen inguruko ospakizunak, herrian gertatutako aldaketa sozialak, familiari eta senideei eginiko bertso sortak... Esan dezakegu Jose Manuel Arriolak XX. mendearen bigarren parteko Arrasate herriaren historia apal bat idatzi digula, bihar-etziko arrasatearrek euren herria nolakoa zen ikusi ahal izan dezaten. Lekuonak *Nekez bada ere* liburuan zioskunez:

“Gaur edo biar, egungo urbiltasuna igarotakoan, eta gauzak atzenduxe zaizkigunean, orduan lagungarri ona gertatuko da gure erriaren kondaira bizia azpi-azpitik ezagutu nai dutenentzat. Batez ere aragi bizitan datoz Arrasatek ogeigarren gizaldiko azken laurdenean eduki dituen kinka eta azimiñak, krisialdiak, gizonak, erakundeak, kirolariak eta abar. Eta denboraren joanean, beste dokumentuekin batera, iturritxo bat izan daitezke, erri xeeak bizi izan zuen aldartea ezagutzeko, batez ere mondrogoitarren giza aldar-teaz jabetzeko”.

Edozelan ere, Arrasatez gain Arriolak baditu beste gai kuttun batzuk, sarri ere sarri landu izan dituenak: natura eta urtaroak (“Udazkena”, “Udaberriari”...); erlijioa –txera berezia zion Arantzazuko Ama Birjinari– (“Berrogei ta amar urte Gipuzkoako Zaindari”, “Frantziskotarrak”...); euskal kultura (“Barandiaran-Arantzadi”, “Manuel Lekuonari”...); kirolak (“Pelota ta pelotariak”, “Perurena indartsuari”...)...; eta, zer esanik ez, bertsolaritza.

Bertso munduari lotzen bagatzaizkio, ugariak dira Arrasateko kalezainak bertsolaritzaren gainean idatzitako bertso sortak:

alde batetik, izen propioen ingurukoak (Mendaro Txirristaka, Zubeltzu, Patxi Barbero, Ibai-ertz, Basarri, Uztapide, Lazkao Txiki...); eta, bestetik, omenaldiak, txapelketak, haur bertsolarien norgehiagokak, bertso eskolak... Hemen ere, 60ko hamarkadatik aurrerako bertso munduaren kronika polita eskaintzen digu Goikoetxeko semeak. Duela ehun urtetsu jaio zen Uztapideren heriotzaren berri mireshenez eta apal eman zigun bertso bakarrean (“Uztapide il da!”). Hona hemen bertsoa:

Zu, Uztapide, Euskal Errian  
dakiguna da lenengo,  
zure entzuterik ez duan asko  
ez dala emen egongo;  
zutaz amaikak itzegin du ta  
oraindik du itzegingo,  
bear ainbeste esateko gai  
ez gera baiña izango.

Lazkao Txiki hiltzean ere, paperera joko du Arriolak une horretako bere sentimenduak adierazteko. Bost bertsoko sorta-txoa opetsi zion, *El Diario Vasco*-n (1993-04-18) argitaratu zena. Sorta horretako bertso bat dakargu lerrootara:

Bizi zan arte txikien otsa  
franko izan du munduan,  
baiña aundiak berdintzen zekin  
jarri ezkeron onduan;  
oartu gera gure artetik  
aldegin digun orduan:  
txikia zanak zer neurritako  
utsunea utzi duan.

### **Gizon zintzo, apal, zuzen, eskerroneko...**

Aipatua dugun *Nekez bada ere* liburuaren hitzaurrean, Jose Manuel Arriolaren bizitzaren nondik norakoak zehaztu eta gero, Arrasateko kalezaina bertsolariz eta gizonez deskribatzen

digu sinatzen ez duen atarikoaren egileak. Bertsolariz: bihotzeko sentipenak paperean tajuz ipintzen dakiena; gizonez: premian dagoenaren laguntzailea, gizon zintzoa, apala, zuzentasunaren ispilua, baita eskerronekoa ere.

Leintz bailarako bertsozaleen eskerrona “Joxe Manuel errizaina eskertu nahian” hamar bertso sorko sorta samurrean dakusagu islatuta:

Gizon apal bat zara herrian,  
zintzoa eta garbia,  
zuzen ipintzen ahaleginduaz  
oker dabilen jendia;  
atseden ordu daukazunean  
bertso idazle trebia,  
omen batekin ez da ordaintzen  
zuk egin duzun guztia.

Basarrik ere, liburuaren atarikoan agertzen ditu Arriolaren dohain pertsonalak –haren bertso gintzaren ingurukoak J. M. Lekuonaren esku uzten ditu–, baita bertsolaria eta Arrasate herria bihotz-bihotzez zoriondu ere:

“Zoriontzen zaitut biotzez, Joxe Manuel, ain ertzain edo *polizi* txalogarria izan zeralako. Ondoren datozenak badute zugandik zer ikasi. (...) Zoriontzen zaitut, baitere, ta bereziki, zeure betiko zaletasunari egoak zabalduz ainbat bertso eder moldatu dezulako. (...) Gure izkuntzak zenbat eskertzen zaituan ez dago esan bearrik. Zorionak zuri ere, Arrasate, alako gizonari alako onoreak egin dizkiotzulako”.

Jose Antonio Ardanza Garro lehendakari ohia eta orduko (1981) alkateak herritar guztien izenean luzatu nahi izan zion Arrasate herriaren eskerronezko omena:

“Mondragoetar guztien nahiaren oihartzuna harturik eta bere lan eskergaren ordain apal bezala, udale-



txeak omenaldi bat eratu nahi izan dio, kalezain zintzo, bertsolari trebe eta, oroz gainetik, gizon jator, arduradun, soil eta leial denari. Jauna, zuregandik du ohore gure herriak!”.

## **Doktoradutza konpartitua**

Aita Zavala aipatu dugu gorago, eta berriro joko dugu tolosarrarengana. *Mondragoiko kalezainñaren bertsoak* liburuaren hitzurrearen hasieran XX. mendearen azken hamarkadetako bertso-jartzaile nagusien zerrendan beren-beregi sartzen du Jose Manuel Arriola. “Bertso idatzietan garai emankorra eta dizit-ratsua izan zan ura” diosku Zavalak, protagonista horien zerrenda eginez: Manuel Matxain, Inozentzio Olea, Sebastian Salaberria, Jesus Lete *Ibai-ertz*, Gillermo Albizu, Jose Aierbe, Marzelino Manterola, Joxe Mari Arrieta, Joxe Mari Lertxundi, Jose Manuel Arriola...

Horien guztien inguruan umotu zen Goikoetxe baserriko semearen bertsogintza. Elkarrengandik ikasiz, eta elkar animatuz eta adoretuz, eskola berezi bat sortu zuten, Basarri handia gidari zutela. Liburuko 318. orrialdeko argazkia eta “Esker xamurra” bertso sorta dirateke esandakoaren lekuko: “Garagarri-llan ogeta seian, / Donostian Aldanondon, / bertsojartzaile sail bat bazkaltzen / alkartuta giñan egon”. Gorago esan dugunez, handik urte batzuetara, argazki horretako partaide gehienak izan ziren omenduak Donostian, Bertsolari Egunean (1994-01-23). Hamabost urte geroago ikusi du argia *Mondragoiko kalezainñaren bertsoak* liburuak, egilearen bertso-bizitzan hirugarren mugarri nagusia denak. Metafora eder bat erabilita diosku Aita Zavalak zer den liburuau:

“Gure mendi malkarretan beera datozen errekatxoak beeko sakonean bildu eta ibai ederra egiten duten bezelaxe, bilduma au ere andik-emendik etorritako puska askorekin osatua da, lareun orrialde pasa di-

tuen liburu mardula borobildu arte. Bertso-kutxa zabalda, mamitsu eta aberatsa degu, zalantzarik gabe”.

Bertso-jartzaile andana handi bat aipatu dugu Jose Manuel Arriolaren inguruan, baita omenaldi konpartitu bat ere. Beste omenaldi handi baten, Aita Zavalaren beraren *Honoris Causa* doktore izendatze-egunean, plazaz plaza urte luzez kantari ibilitako bertsolari talde batek lagundu zuen *Auspoa* bildumaren sortzailea. 1999ko azaroaren 19an Deustuko Unibertsitatean, jakintzaren etxean, egin zen ekintza akademiko solemne hartan, doktore, katedratiko eta jakintsu askorekin batera, Manuel Lasarte, Jon Lopategi, Basilio Pujana, Joxe Lizaso, Txomin Garmendia eta Jose Maria Lertxundi bertsolariak ere hartu izan zuten parte: herri literatura apalak bere lekua izan zuen saio unibertsitario ohoretsuan.

Ohorea Aita Zavalarentzat izan zen, doktore boneta Tolosako jesuitaren buruan jarri zuten, jantzi bereziak ere Xabierren bizi zen langile porrokatuaren soinean pausatu ziren... Edoze-lan ere, doktore berri izendatzen zuten euskaldun apalak baze-kien –sentitzen zuen– omen hura konpartitzekoa zena:

“Gaurko egunean, beraz, ni ez-ezik, zera goratzen eta txalotzen dezute: nik urte askoren lanari esker bildu dedan uzta ori, illunpetik argira atera dedan altxor ori, alakotzat artu bear dala epaituz.

Orregatik, aitorpen au neretzako bakarrik balitz, gaurko ospakizunari ezezkoa emango nion seguru asko. Baiña neretzako bakarrik ez da. Gure erriarentzat ere gauza aundia dala derizkiot. Gure erriaren izkerak eta literaturak oso gutxitan artu dute gaurkoa aiña gorlpenik eta onespenik. Egia esateko, iñoiz eman zaien oorerik aundiena une ontan eskeintzen zaie bearbada”.

Izan ere, Aita Zavalaren ustetan, Deustuko ekitaldi akademiko hartan buruan jarri zioten bonet hark beste buru asko ere

jantzi zituen, buru apalak, buru azkarrak...: “Aldi ontan, neri ez ezik beste askoren buruari ere eransten diozute estalki ori”.

Ziur gaude Aita Zavalak, Deustun jarri zioten bonetaren lits txikitxo bat, hots, doktore buru-estalkiaren bueltan zintzilik dauden haritxoetariko bat, Jose Manuel Arriolarentzat gordeko zuena. Hil aurretxoan amaituta eta inprentarako prestatuta laga zuen *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak* liburuaren aleren baten egongo da *firutxu* hori. Izan ere, *Auspoa*-ren hauspo nagusiak baturiko literatur uzta jori horretan, bertso-eskutada eder bat Jose Manuel Arriolarena izan da.

Agur eta ohore, herri kulturaren zimendu apal bezain sendo zaretan idazle, kontalari, bertsolari, bertso-jartzaile... jatorroi!

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*